

Behatoki batean 30 eguneko hilabetean honako gehieneko tenperaturak erregistratu ziren:

5 egunetan zehar: 22°
4 egunetan zehar: 24°
5 egunetan zehar: 25°
6 egunetan zehar: 27°
3 egunetan zehar: 28°
3 egunetan zehar: 29°
4 egunetan zehar: 30°

1/Balio horien batezbesteko aritmetikoa edo batezbestekoa, bi hamartarrekin biribilduta, honakoa da:

a) 27,12 b) 26,13
c) 26,12 d) 28,00

2/ Batez besteko desbiderapenaren balioa, bi hamartarrekin biribilduta, hauex da:

a) 2,41 b) 2,53
c) 2,45 d) 2,32

Behatoki batean eguneko 24 orduetako tenperatura erregistratzen da. Hona hemen erregistro hori:

Eguneko ordua	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23
Graduak	8	8	9	9	9	8	9	10	11	11	13	16	18	20	20	20	18	15	14	11	10	9	9	9


3/ Egun horretan tenperaturen batezbestekoa, bi hamartarrekin biribilduta, honakoa izan zen:

a) 12,25 b) 12,36
c) 12,26 d) 12,31

4/ Banaketaren mediana hau da:

a) 10,8 b) 11,1
c) 11,2 d) 10,5

Beheko grafikoak puntu-hodeia du, behatoki batzuen hileko batez besteko tenperatura eta hezetasuna erlazionatzeko.



Aukera ezazu erantzun zuzena. Bakarra dago.

Demagun "a" aldagaiak korrelazio positiboa eta handia duela "b" aldagaiarekin, eta azken honek ere korrelazio negatiboa eta handia duela "c" aldagaiarekin.

5/ Hurrengo baieztapenetatik zein da egia? Bakarra dago:

- a) Ez dago inolako korrelaziorik bi aldagai horien artean.
- b) Badago korrelazioa, baina oso ahula.
- c) Badago korrelazioa, handia eta positiboa.
- d) Badago korrelazioa, handia eta negatiboa.

6/ Hurrengo baieztapenetatik zein da egia? Bakarra dago:

- a) Batezbesteko aritmetikoa altua bada korrelazioa handia izango da.
- b) Korrelazioa positiboa bada, aldagai baten balioak zenbat eta txikiagoak izan orduan eta txikiagoak izango dira, normalean, bestearen balioak.
- c) Korrelazioa positiboa bada, aldagai baten balioak zenbat eta txikiagoak izan orduan eta handiagoak izango dira, normalean, bestearen balioak.
- d) Korrelazioa negatiboa bada, aldagai baten balioak zenbat eta txikiagoak izan orduan eta txikiagoak izango dira, normalean, bestearen balioak.

7/ Hurrengo baieztapenetatik zein da egia? Bakarra dago:

- a) Ezin dugu ezer esan "a" eta "c"-ren arteko erlazioari buruz.
- b) "a" eta "c"-ren artean ez dago korrelaziorik.
- c) "a" eta "c"-ren artean korrelazio positiboa dago.
- d) "a" eta "c"-ren artean korrelazioa dago, baina ez dakigu positiboa ala negatiboa den.

Demagun "a" aldagaiak korrelazio positiboa eta handia duela "b" aldagaiarekin, eta azken honek ere korrelazio negatiboa eta handia duela "c" aldagaiarekin.

"a" eta "b" aldagaien artean korrelazio handia eta positiboa dago.

"a" eta "b" aldagaien artean korrelazio handia eta negatiboa dago.

8/ Hurrengo baieztapenetatik zein da egia? Bakarra dago:

- a) Ezin dugu ezer esan "a" eta "c"-ren arteko erlazioari buruz.
- b) "a" eta "c"-ren artean korrelazio negatiboa dago.
- c) "a" eta "c"-ren artean korrelazio positiboa dago.
- d) "a" eta "c"-ren artean korrelazioa dago, baina ez dakigu positiboa ala negatiboa den.

9/ Hurrengo zein baieztapen da zuzena? Bakarra dago.

- a) Segurua da zenbat eta aldagai baten balio gehiago izan bestearen balio gehiago izango dituela.
- b) Seguru asko, zenbat eta aldagai baten balio gehiago izan bestearen balio gehiago izango dituela.
- c) Ez da hain segurua zenbat eta aldagai baten balio gehiago izan bestearen balio gehiago izango dituela.
- d) Seguru asko, zenbat eta aldagai baten balio gehiago izan bestearen balio gutxiago izango dituela.

10/ Hurrengo zein baieztapen da zuzena? Bakarra dago.

- a) Segurua da zenbat eta aldagai baten balio gehiago izan bestearen balio gehiago izango dituela.
- b) Seguru asko, zenbat eta aldagai baten balio gehiago izan bestearen balio gehiago izango dituela.
- c) Ez da hain segurua zenbat eta aldagai baten balio gehiago izan bestearen balio gehiago izango dituela.
- d) Seguru asko, zenbat eta aldagai baten balio gehiago izan bestearen balio gutxiago izango dituela.

Testaren zuzenketa:

10.d
9.b
8.b
7.c
6.b
5.c
4.d
3.a
2.d
1.b